

UDALBATZARI	AL EXCMO. AYUNTAMIENTO PLENO
<p>Udalbatzaren Organo Araudiko IX. Tituluak eta, bereziki, VI. Kapituluak arautzen dute Kontratazioa Kontrolatzeko eta Jakitun Egoteko Batzorde Berezia.</p>	<p>El Reglamento Orgánico del Pleno regula en su Título IX las Comisiones del Pleno y de modo específico en el Capítulo VI la Comisión Especial de Control y Seguimiento de la Contratación.</p>
<p>Batzorde berezi hori dugu udal Administrazio osoaren kontratu bidezko jarduera kontrolatzeko eta zaintzeko organoa, hau da, barne hartzen ditu Udala bera, erakunde autonomoak, udalaren enpresa erakunde guztiak eta osorik udalarenak diren baltzu publikoak, eta helburu du kontratazioan publizitatea, lehia mugagabea, objektibotasuna, gardentasuna eta eraginkortasuna bermatzea.</p>	<p>La Comisión Especial es el Organo de control y vigilancia de la actividad contractual de toda la Administración Municipal, es decir, Ayuntamiento, Organismos Autónomos, Entidades Públicas Empresariales y Sociedades Públicas y tiene por finalidad garantizar la publicidad, libre concurrencia, objetividad, transparencia y eficacia de la contratación.</p>
<p>Batzordeak Udalbatzari jardueren urteko Oroitidazkia bidali behar dio.</p>	<p>La Comisión debe elevar al Ayuntamiento Pleno una Memoria anual de sus actividades.</p>
<p>Batzordeak 2008ko otsailaren 5eko bilkuran legealdi osorako funtzionamendu arauak onartu zituen, eta urteko oroitidazkiari dagokionez, edukia, aldizkakotasuna, lanketa eta izapidetzea.</p>	<p>La Comisión, en sesión celebrada el 5 de febrero de 2008, aprobó sus Normas de Funcionamiento para toda la Legislatura y en relación con la Memoria Anual su contenido, periodicidad, elaboración y tramitación.</p>
<p>Aipatu arauen ondorioz, batzordeburuak oroitidazkia onarkizun bidaliko dio Batzordeari dokumentuak jasotzen duenaren hurrengo ekitaldiko lehen hiruhilekoan.</p>	<p>De conformidad con dichas Normas, la Presidenta elevará la Memoria, para su aprobación, a la Comisión dentro del primer trimestre del ejercicio siguiente al que se refiere.</p>
<p>Batzordeak onarturiko oroitidazkiaren jakitun jarriko dute Donostiako Gobernu Batzarra.</p>	<p>De la Memoria aprobada por la Comisión se dará cuenta a la Junta de Gobierno Local.</p>
<p>Oroitidazkia; eta halakorik egonez gero, gogoetak eta hobetze proposamenak; Udalbatzari bidaliko diote, jakitun jartzeko asmoz.</p>	<p>La Memoria conteniendo, en su caso, consideraciones y propuestas de mejora, se elevará al Ayuntamiento Pleno para su conocimiento.</p>

<p>Batzordeak 2015eko martxoaren 3ko bilkuran 2014eko Ekitaldiko Oroitidazkia onartu zuen, osagai dituela aipatu ekitaldian kontrolaturiko kontratuen analisia.</p>	<p>La Comisión, en sesión celebrada el día 3 de marzo de 2015, ha aprobado la Memoria correspondiente al Ejercicio 2014 comprensiva del análisis de los contratos objeto de control del citado ejercicio.</p>
<p>Aipatu oroitidazkiaren jakitun jarri dute Donostiako Gobernu Batzarra 2015eko martxoaren 20an izandako bilkuran.</p>	<p>De dicha Memoria ha tenido conocimiento la Junta de Gobierno Local en su sesión celebrada con fecha 20 de marzo de 2015.</p>
<p>Horiek horrela direla,</p>	<p>En base a lo expuesto,</p>
<p>“Donostiako Udalbatza 2014eko Ekitaldiko Oroitidazkiaren jakitun dago; Udalak, erakunde autonomoek, enpresa erakunde publikoek eta udalaren baltzu publikoek eratzen duten Tokiko Sektorearen Kontratazioa Kontrolatzeko eta Jakitun Egoteko Donostiako Udalaren Batzorde Bereziaren eginak jasotzen dituen”.</p>	<p>“El Excelentísimo Ayuntamiento Pleno toma conocimiento de la Memoria correspondiente al ejercicio 2014 en la que se recogen las actuaciones realizadas por la Comisión Especial de Control y Seguimiento de la Contratación del Sector Público Local del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián, integrado por el propio Ayuntamiento, sus Organismos Autónomos, sus Entidades Públicas Empresariales y las Sociedades Públicas Municipales”.</p>

Donostian, 2015ko martxoaren 12an

SIN.: CHARO GARCIA

Kontu Hartzailetzako Zuzendaritzari laguntzeko teknikaria

SIN.: SUSANA GARCÍA CHUECA

Kontratazioa Kontrolatzeko eta Jakitun Egoteko Batzorde Bereziaren burua.